ARAUTEGIA

V. SALOME CAMPOS IGERIKETA

Parte-hartzaileak, arautegi hau zein probaren edozein aldaketa (organizazioz kanpoko arrazoiengatik) onartzera konprometitzen dira. Inskripzioa egiteak hurrengo konpromiso hauek irakurri, ulertu eta bereganatzea inplikatzen du.

- Nire parte hartzearen erantzukizun guztia, Organizaziotik salbuesten dut (lapurreta edo objektu pertsonalen galera, lesioen arriskua, …).

- Baimena ematen diot organizazioari Igeriketaren promoziorako nire irudiak erabiltzea argitalpenetan, karteletan, …; hala ere, inskribatutako edozein pertsonak debekatu dezake bere irudiaren erabilera, aldez aurretik idatzizko eskaera bat eginez Organizazioari korreo elektroniko honen bitartez: **info@salomecampos.com.**

- 15/1999 arau organikoarekin bat, zure datu pertsonalak fitxategi baten parte hartuko dutela informatzen da, non beraren erantzukizuna antolatzaileen entitateari dagokion. Honen helburua, Salome Campos Igeriketarako datuen gestioa burutzea da, halaber, etorkizuneko edizioei buruz informatzea. Sarbide, zuzenketa, deusezta-pen eta oposizio eskubideak gauzatu daitezke aurrez aipatutako e-mail horretara zuzendu ezkero, NAN fotokopi bat gehituz.

ERAKUNDEA/ORGANIZAZIOA

Salicak, Fortuna kirol klub-aren laguntzaz, eta Bermeoko udaletxeak antolatzen dute Salome Campos igeriketa.

Proba hau aurrean dugun organizazioko araudiaren menpe garatuko da.

DATA

Proba 2017ko Irailak 2an (zapatua) burutuko da, goizeko 11:15tatik aurrera.

PARTE HARTZAILEAK

18 urte baino gehiago duten pertsona guztiak parte hartu dezakete, baldin eta federatuak badira edo nahitaezko segurua kontratatua badute.

18 urte baino gutxiago dutenek Triatloi edo Igeriketa federazioko lizentzia eman beharko dute edo gurasoen zein tutorearen baimena aurkeztu beharko dute dortsala batzerako orduan.

Parte hartzaile guztiak osasun baldintza hobezinetan daudela eta parte EZ hartzeko ez dutela inongo arrazoirik adierazten dute. Honengatik igerilariek beraien erantzukizunaren menpe parte hartzen dutela onartzen dute.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Organizazioak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatzen du, istripu aseguruaz gain parte hartzaile denak aseguratzeko.

IBILBIDEA ETA BEHARREKO DENBORA MINIMOAK

Igeriketa 3 distantziatan lehiatuko da: 500 m. (11-14 urte) 1.500 m. eta 5.000 m. Bermeoko portutik hasita kanpoko kaiarantz.

5.000 m. probarako nahitaezkoa izango da frogatzea antzeko Igeriketetan denbora berdinak edo hobeak, hemen behean adierazitakoak baino:

2000m 50'<
2500m 1h 03'<
3000m 1h 15'<
4000m 1h 40'<
5000m 2h<

Behin betiko inskripzioak balioztatu baino lehen, akreditazio horiek organizazioak baloratuko ditu.

MATERIALA

Neoprenoaren erabilera onartuta dago baina ez da derrigorrezkoa.

Derrigorrezkoa da Organizazioak emandako txapelaren erabilera segurtasun arrazoiengatik eta uretan parte hartzaileak kontrolatzeko. Aparatu elektroniko guztiak, erloju, pultsometro eta uretako GPS-ak onartuak izango dira, aldiz, musika irakurgailu edo antzekoak ez.

Ez da onartzen material laguntzaileen erabilera, zeintzuek propultsioa edo flotazioa errazten duten, ez bada organizazioak kontsideratutako salbuespen bat.

OSASUN ZERBITZUA

Igerilariak aseguratuta egongo dira erantzukizun zibileko aseguru-poliza baten bidez, Dekretu errealeko 62/2008 14. Artikuluko eranskinak dionez, non itsasketako, itsasoko segurtasun baldintzen araudia eta uretako kirol probak gainditzen duen. Organizazioak eta beraren kolaboratzaileak ez dira izango edozein lesioren, zuhurtziagabetasun pairamen baten, zabartasun edo igerilarien forma fisiko falta baten arduradun egingo.

INSKRIPZIOAK

Inskripzioa igeriketaren web orrialdean egin beharko da edo baita ere www.rockthesport.com orrialdean. Pertsonala eta transferiezina da eta aurrean dugun araudiaren artikulu guztien onarpena suposatzen du, baita erosketa baldintzak. Inskribatu ostean, parte hartzaileak ezin izango balu parte hartu eta bajan eman nahi badu bere

inskripzioa, posible da, inskripzioaren prezioaren gain 6€ko atxikipenarekin. Ezeztapena lesio batengatik izanez gero, medikuaren txostena aurkeztuz inskripzioaren zenbateko guztia bueltatuko da edo inskripzioa hurrengo ediziorako gordeko da. Baja ematearen eskaria inskripzio data amaitu orduko egin beharko da www.rockthesport.com web orriaren bidez. Data horretatik aurrera bakarrik onartuko dira lesio batengatik egindako bajak.

Inskripzioaren barne:

- Igeriketan parte hartzeko eskubidea

- Istripu asegurua

- Proban zehar eta amaieran laguntza

- Igeriketa ostean anoa

- Txip elektroniko baten bidez kronometrajea

- Oparia

PLAZEN KOPURUA ETA INSKRIPZIOEN PREZIOAK

Distantzia	Plazak	Federatuak*	Federatu gabeak
5.000 m.	320	25 euro	28 euro
1.500 m.	300	15 euro	18 euro
500 m. (11-14 urte)	80	8 euro	1 euro

*Igeriketan edo Triatloian federatuak

Abuztuaren 1etik aurrera, izen-emateen prezioa 5 €-tan igoko da.

KATEGORIAK

1.500 eta 5.000 metroko distantzietan, hurrengo kategoriak daude:
- BETERANOAK (55 urte edo gehiago)
- MASTER PLUS (45-54 urte, biak barne)
- MASTER (35-44 A urte, biak barne)
- SENIOR (15-34 urte, biak barne)
- HAURRAK (11-14 urte, biak barne)

IGERILARIEN BOLTSA BANAKETA

Igerilari guztiek poltsa bat jasoko dute beraien parte hartzeagatik zein zona antolatu baten emango den (Bermeoko Kaian) 2017ko irailak 2an bertan goizeko 9:00tatik 11:50etara. Poltsa horretan egongo dira; oroitzapenezko txapel bat (derrigorrezkoa da jartzea) eta etiketa bat kontsignan bakoitzaren poltsak identifikatzeko.

ALDALEKUAK ETA KONTSIGNA

Zona bat egokituko da kaian. Igerilariek al izango dute bertan erantzi arropak eta gorde beraien gauzak motxila batetan. Igerilari bakoitzari zenbaki bat emango zaie beraien besoan markatu behar izango dutena kontsignan beraien poltsa/motxilak identifikatu al izateko. Igeriketa eta gero motxila batu al izango da kontsignan, bakoitzaren besoko zenbakia aurkeztuz.

IRTEERA ORDUAK

- 11:00: 500 m. distantzia (11-14 urte)
- 11:40: 5.000 m. distantzia (emakumeak)
- 11:50: 5.000 m. distantzia (gizonezkoak)
- 12:00: 1.500 m.

ANOA POSTUA

Organizazioak erraztuko du igerilarientzako anoa postua proba amaitu osterako.

SARI BANAKETA

Sari banaketa 14:00tan izango da, Igeriketa amaitu ostean zona egokitu batean, Bermeoko kaian.

DESKALIFIKAZIO ETA BERTAN BEHERA UZTEAK

Igeriketako Organizazioak eta/edo osasun zerbitzuak kontsideratzen badu beharrezkoa dela norbaitek bertan behera utzi behar duela proba beraren segurtasuna ziurtatzeko, Organizazioa erreserbatzen da hori egiteko eskubideaz.

Kasuak

- Igerilariak ibilbide guztia egin ez gero.

- Identifikazio (txapela) ikusgai ez daroan, maneiatzen duenari edo publizitatea daroan igerilariari.

- Igeriketako parte-hartzaileak arriskuan jartzen duen baldintza meteorologikoak.

- Egoera fisiko txarrean, deshidratazio, hipotermia, sekulako nekea, erritmo oso geldoa edo beste edozein sintomak igerilariren bati igeri egitea galarazten dionean.

- Organizazioak ezarritako segurtasun mugak errespetatzen ez duen igerilariei, kiroltasunik gabeko portaera adierazten duenari edo organizazioaren aurka protestatzen duenari. Seinale eta talde teknikoak markatzen duen ildoak jarraitzen igeri beharko da.

- Igerilariak sokorri seinalea egiten duenean, beso bat edo biak igotzen duenean.

PROBAREN ALDAKETAK

Baldintza klimatologiko kaskarren kasuan, Organizazioak egoki kontsidera dezake suspenditzea edo beste Igeriketa alternatibo bat egitea. Kasu baten ere ez luke Organizazioak inskripzioen zenbatekoa bueltatuko.

BESTE BATZUK

Informazio gehiago edo edozein duda edo eskari argitzeko, e-mail honen bitartez **info@salomecampos.com**